


Airearen laguntza

Nola eragiten dio objektu baten formak objektu hori airean erortzeko moduari?

Materialak

- Guraizeak
- Erregela bat
- Soka bat, 2,4 metrokoa
- 2 zapi karratu
- 2 arropa-pintza



Zer egin

1. Ebaki soka 30 cm-ko zortzi zatitan.
2. Egin korapilo handi bat zapi baten erdian.
3. Lotu soka zati bana zapi bakoitzaren ertzetan.
4. Batu zapi bakoitzaren lau soka-muturrak, eta korapilatu arropa-pintza baten buruan.
5. Heldu zapi bakoitzari erditik, eta bota biak airera.
6. Zer gertatu da?

Zer gertatzen da?

Erdian korapiloa duen zapia azkarrago erori da lurrera, korapilorik ez duena baino. Objektu batek aire-molekulak kolpekatzen ditu airean erortzen ari denean. Molekula bakoitzak pixka bat igotzen ditu erortzen ari diren objektuak. Korapilorik ez duen zapia zabaldu egin denez, aire-molekula gehiago harrapatu ditu, eta, hala, polikiago erori da.

